



Kultur gida



2014ko uda

Esku artean duzun gida hau zure gustukoa izatea espero dugu, gure herriak udara honetan gozamenerako eta ondo pasatzeko eskainiko duen aukera zabalaren gida baita.

Urte guztian zehar ekimen ugari egiten dira, kultur, kirol eta musika talde ezberdinek egiten duten lanari esker. Hala ere, Deba, kostako beste herri asko bezalaxe, eguzki izpiekin batera, berotzen hasten da eta kale giroa areagotzen; eta horregatik, aurtan, ekainetik irailera bitartean, uda giroan, ohiko agendari bultzadaxo bat eman eta, hainbat talderekin elkarlanean, kultur eta kirol ekimen ezberdinak antolatu ditugu, bertakoontzat eta gure herrira bisitan datozen guztientzat.

Herriko hainbat gunetan, eta adin tarte guztientzat, ekimen ugari eta ezberdinak egongo dira, zaletasun guztiak asetzeko helburuarekin.

Dugun kultur ondarea plazara jalgiko dugu, tokian tokikoa bultzatuz: zinea, musika, dantza, antzerkia, surfa, pintura eta abar luze bat, ondorengo orrietan azaltzen den bezalaxe.



Esperamos que esta agenda que tienes en tus manos, sea de tu agrado, ya que recoge la amplia gama de ofertas de ocio y disfrute que ofrecerá nuestro pueblo este verano.

Gracias al trabajo de diferentes grupos culturales, deportivos y musicales ya se realizan diferentes actividades a lo largo de todo el año. Sin embargo en Deba, como en otros muchos pueblos costeros, con la llegada del calor y de los rayos de sol, el ambiente en la calle se vuelve más intenso. Por ello, durante el periodo veraniego que va de junio a septiembre y reforzando la agenda habitual en colaboración con varios grupos, se han organizado este año diferentes actividades culturales y deportivas para los/as vecinos/as y para todos/as aquellos/as que se acerquen a nuestro pueblo.

Con el objetivo de satisfacer a todos/as, este verano se llevarán pues a cabo actividades diversas y variadas, en diferentes sitios y para distintas edades.

Como podéis ver en las páginas siguientes, sacaremos a la calle nuestra cultura desde lo más cercano, desde lo local, con muestras de cine, música, danza, teatro, surf, pintura y mucho más...

Besterik gabe, gozatu eta gozatzea bakarrik geratzen da!

ekaina-uztaila

Ate joka datorkigu uda. Eguzkia eta ura. Epela eta freskura. Ekain uztailean izango ditugun ekitaldiek asko dute beroaren gozotasunetik; baita bustiaren bizigarritasunetik ere. San Juan bezperako suarekin hasita, gorputzak prestatu eta ur-ihintzetan, ibai, itsaso zein iturrietan indarbertzeko aukera izango dugu, eskaintzen zaizkigun kultur eta kirol ekitaldiekin jolastuz eta gozatuz.

Tradizioa, ohiturak eta sinesmen zaharrak berregin (San Juan sua, uraren dohainak, sorgin kontu interesgarriak,... gizapropa, sokatira-bxapelketa,...) eta hainbat eta hainbat ikuskizun ederrekin gozatuko dugu plaza zaharreko ituri ondoan (antzerkia, musika, dantza, erakusketak, proiektzioak...). Iturritik edaten baitugu ura, *beti berria den ura betiko iturri zaharretik*. Eta ura bezalaxe etortzen baitzaigu hitza eta kultura, etengabe. Beti berria den hitza, beti berria den kultura, betiko hizkuntza eta kultura zaharretik.

Taldearen bizigarri.

Hilabete honetako hitza: **JARRAIDURA.**- emandakoari edo iritsi zaigunari jarraipena emateko gizakiok dugun sen kulturala.

En estos dos meses nos centraremos en aquellas actividades culturales que muestran la tradición y aquellas otras más actuales y modernas que constatan el instinto humano de dar continuidad a la cultura que nos ha sido transmitida.



ekaina

18
asteazkena

Kultur Elkartea
19:00etan

“PRAILEHAITZ I”
liburuaren aurkezpena

Erakusketa (Agirre jauregiko erakusketa gela):
Durangoko margolari taldea

ekainak uztallak
19-6
osteguna igandea

19
osteguna

Agirre jauregiko ispiluen gela
21:30ean

Herriko ipuin kontalariak:

“GORDE SEKRETUA”

(Hezikuntzako irratiketa)

Bidaia bat egingo dugu, mundu fantastiko batera. Prestatu burua, prestatu gorputza eta bihotza.

“Izena duen guztia, bada”. Hala dio euskal esaera zahar batek.

Lamiak, jentilak, pamielak, akelarreak eta beste hamaika kontu ezagutzeko parada eskainiko digu kontalariak saio honetan, baina horrez gain, edo horren gainetik, horiekin guztiekin gozatzeko aukera.

Gozatu kontu zaharrekin, Graziana eta kontalariaren beraren arteko harremanarekin; larritu ere egingo da, akaso, inquisizioaren kontuekin... Entzuleak hamaika istorio, hamaika errealitate, hamaika kontu zahar ezagutuko ditu emanaldian zehar.



23
asteartea

SAN JUAN SUA

Kultur Elkarteko plaza

SORGIN IPUINAK (Herriko ipuin kontalariak)

18:00: HH (Haur Hezkuntza) • 18:30: LH 1, 2 eta 3 mailak • 19:00: LH 4, 5 eta 6 mailak

Deba eta Itziarko plazak
22:00etan

Ekiak (hau da, eguzkiak) GAINA hartzen duen garaia. Gaur egun 23an egiten den arren, lehen hilaren 21ean egiten zen, egunik luzeena eta gaurik laburrena delako. Udako solstizioan sartu garela, uda iritsi zaigula ospatzen dugu.

Hemendik aurrera egunak berriro laburtzen eta gauak luzatzen hasiko dira eguberriak arte. Udako festa bat da beraz, eta sua eta ura dira hura ospatzeko bi elementu nagusienak.



27
ostirala

Iturri ondoan

Plaza zaharra
22:00etan

Errimak oinetan

Bertsolariek sentipen eta emozioak harilkatzen dituzte entzuleengan. Baina entzule horiek dantzariak balira? Nola adieraziko lukete belarrietatik jasotako zirrara errimatua oin puntetan menperatzen duten dantzaren bidez?

Galdera horren erantzuna da "errimak oinetan", bertsolaritza oinarri duen dantza emeraldia. HAATIK dantza konpainiak jarri ditu oinak errimetan eta errimak oinetan. Dantza berriak, bertsoei jarriak.

- Zuzendaritza:
AIERT BEOBIDE eta UNAI ELIZASU

errimak oinetan



28
larunbata

Santa Maria eliza
20:00etan



Kontzertua: "FAURÉren REQUIEMA"

- Fco. Javier Muru
(Organoa)
- Aitzuri Abesbatza
(Deba)
- Ezoiko Ama
(Soraluze)



uztaila

4

Kultur Elkarteko plaza
22:30ean

Zinea: "EMAK BAKIA"

Oskar Alegria zinegile eta kazetariak sortutako dokumentala.

Dokumentalak "Emak bakia" esaldia du ardatz. Esaldi hori da estatubatuarra izan eta Frantzia bizi den May Ray artista abanguardistak erabiliko duena Miarriz inguruan egindako filman. Izen erakargarri hori duen etxe batean hain zuzen ere. Film poetiko honetan, etxea eta bere ingurua kontuan hartuta, bidaia fisiko eta zinematografikoa egiten du Oskar Alegriak.



Herri kirola

Euskal Joias pitotalekua

5

larunbata

GIZA PROBA Gipuzkoako txapelketa

5-31

Santa Maria elizako klaustroa

Erakusketa

Gonzalo ETXEBARRIA

Artista plastikoa: margolari espresionista abstraktua, marrazkilari eta eskultorea. Bilbon jaio zen (1954). Barkux-en (Zuberoa) bizi da. 1974tik 1976ra bitartean Debako Arte Eskolako tailerreko partaide izan zen. 1988. urtean, beste artista batzuekin batera, Menditte, artista plastikoen taldea sortu zuen. 1998an, Xiru Jaialdian, Aurreranzko musika eskultura bat sortu zuen. Antzerki eta mugikarien egile ere bada.



Erakusketa

Agirre jauregiko erakusketa gela

11-27
ostirala igandea

BAROJA COLLET

Le Creusot-en jaio zen (1957 Frantzia). Euskal Herrian bizi da 1964az geroztik. Gaur egun, Deban bizi eta lan egiten du. 1983. urtetik kalkografiako grabatu gelaren arduraduna da Debako Eskulangintza Eskolan. Ignacio Chillidarekin handitu zituen kalkografiako ezagutzak. 2000. urtean "Eibartarrak" grabatu sorta aurkeztu zuen Eibarko Portalea gune kulturelean. 2001ean El Cairoko, Egipto, Bienalera gonbidatu zuten. 2006. urtean, Mexico-ko Meridan izandako "Hermandades Escultóricas Mexi-España" erakusketan parte hartu zuen. 2010.ean "II Encuentros Internacionales de Artistas en Doñana"-ra gonbidatu zuten, Almonten, Huelvan.



Marierrauskin zu izan zaitezke

BOROBIL TEATROA: MARIERRAUSKIN aurkezten dizue hain ezaguna den ipuin famatuaren bertso dibertigarri eta originala. Publikoa istoriko protagonista bihurtuko da proposamen honetan. Kultur saileko bi langile gure herrietan zehar ibiliko dira ikusleekin jolaserako ahalmena bialoratzeko asmo tinokoz. Ikerketa hau aurtera eramateko, hain ezaguna zaigun ipuin hau taularatuko dute publikoaren laguntzarekin. Ordubetean zehar, gazte zen heldu elkarrekin dibertituko dira, ipuneko pertsonaak oso arsa berezian gorputuz.

Ez galdu Orangoan. **BEU IZAN ZAITEZKE MARIERRAUSKIN**



11

ostirala

Iturri ondoan

Plaza zaharra
22:00etan

Borobil
Teatroa

18

ostirala

Kioskoa
22:00etan

Kontzertua:

Debako eta Zumaiako musika bandak

Zinea: "ASIER eta BIOK"

24

osteguna

Kultur Elkarteko plaza
22:30ean

Zuzendariak: Aitor Merino eta Amaia Merino

Asier eta biok elkarrekin hazi ginen Euskal Herriko kale gatatzatsuetan. Ondoren, bide ezberdinak hartu genituen. Halako batean, Asier desagertu egin zen; ETAn sartu zen. Nola ulerrarazi hartutako erabakia, neuk neureganatu ezin banuen?

25

ostirala

Iturri ondoan

Plaza zaharra
22:00etan

MALATU

Leintz Gatzaga eta Gasteizen jaiotako taldea da MALATU eta jatorri desberdina duten musikariek osatzen dute. Estiloak nahastea bilatzen du MALATUK, bere baitan jasotzen dituen estiloak; jazz klasikoa edota abesti herrikoia kasu. Beti ere bilatu gabeko nahaste naturala sentiarazteko intentzioarekin.



26

Zumardia
Herri kirola

SOKATIRA
Gipuzkoako txapelketa



abuztua

Abuztuan festak. Itziarokoak eta Debakoak. Baina nabarmentzekoa, berriena delako, **I. Surfing-Deba festa**. Urarekin jarraituko dugu jolasean, baina itsasokoarekin oraingoan: base jauziak, stand up eta surf ikastaroak, slickline, txapelketak... guztia musikarekin borobilduta eta festa giroan; hondartzako kirol berriak ezagutu eta praktikatzeko aukera paregabea. Inguruokoak erakartzeko moduko jaialdia.

Uztailean herriko musika taldeen emanaldiekin gozatu ondoren, erakusketekin eta musika hamabostaldiko kontzertuekin jarraituko dugu. Beste batzuen artean, Sorozabalen omenez egiten den musika garaikideko lehiaketan irabazle suertatutako obra entzun ahal izango dugu.

Herritarron gozagarri.

Hilabete honetako hitza: **TREKIDURA**.- unean unekoari zabalik egon eta, geurera moldatuz, geurean integartzeko jarrera.

Agosto es el mes de las fiestas por antonomasia. Las de Itziar y Deba por una parte; pero también otras, como las que se celebrarán en torno a los deportes acuáticos que se organizan dentro del festival Surfing-Deba Festa. Completaremos el mes con los conciertos musicales de verano. Será el mes que simbolice la apertura a nuevas experiencias a integrar en nuestra cotidianidad.



I. SURFING DEBA FEST'A

Abuztuak 7, osteguna: ZINESURFING eguna

- Bideo emanaldiak
- Bideo lehiaketa
- Kontzertua
- DJ-ak



Abuztuak 8, ostirala: SLACKLINE eguna

- Slackline ikastaroak
- Txapelketa
- Erakustaldiak
- Musika

Abuztuak 9, larunbata: YAKO jaixa eguna

- Arraun surf eta skate ikastaroak doan
- Arraun surf lasterketak
- Surf ikastaroak
- Kontzertuak karpan



Abuztuak 10, igandea: XTREME eguna



- Igeriketa probak
ibaian eta askoz
gehiago...



abuztua

DEBAKO XXXI. UDAKO MUSIKALDIA

7

osteguna

Santa Maria eliza
20:00etan

- Miren Urbietta, sopranoa
- Jose Ignacio Ansorena, txistua
- Koro Sáenz, organista

21

osteguna

Klaustroa
20:00etan

- Raquel Andueza, kantua
- Jesús Fernández,
- Secretum, musika instrumentu taldea

28

osteguna

Klaustroa
20:00etan

- SESAME laukotea

Erakusketak (Agirre jauregiko erakusketa gela)

1-12

ostirala

asteartea

Jesus BELAUSTEGI
zeramika

Juan I. AIZPURUA
argazkiak

22-31

ostirala

igandea

Festak

2 - 6

larunbata

asteazkena

KOPRAIXAK

14 - 18

osteguna

astelehena

SAN ROKEAK

29

ostirala

Iturri ondoan

Plaza zaharra
22:00etan

ANTZERKIA
AED elkarteak

**“ERDALDUN
BERRIEN
KLUBA”**



Irantzu euskaraz pentsatzen, euskaraz sentitzen eta, ahal duen guztietan, euskaraz diharduen neska eskoriatzar bat da. Horrek hamaika arazo sortuko dizkio egunerokotasunean. Irantzuren klubean gubxi dira. Lau katu. Eta sekula ez dute saririk jaso. Ez dituzte telebistan aipatzen. Ez diete elkarriketarik egiten. Irantzuren kluba ezezaguna da. Klandestinoa. Badakizue zergatik? Irantzuren kluba, ERDALDUN BERRIEN KLUBA delako eta erdaldun berri gehienek ez dakite erdaldun berriak direnik. Izan ere, zer arraio da erdaldun berria izatea?

• Egilea: Idoia Etxeberria • Aktorea: Olatz Pagaldai

iraila

Aurten beteko dira 50 urte Deban I. euskal jaia ospatu zenetik. 1964an Oargi elkarteak antolatutako Euskal Jaia, lozorrotik esnatzen ari zen hartzaren orro bortitzaren modukoa izan zen. Euskal nortasuna eta kultura aldarrikatzeko ekitaldi jendetsu eta arrakastatsu hark hurrengo hamar urteetan errepikatu ziren agerraldien sua piztu zuen.

1965ean errepikatu zen festa. 50.000 lagun inguru batu ziren Deban "Txistulari" aldizkariak dioenez, maiatzaren 16an, Euskal Jaia ospatzeko. Bai agintari frankistek eta bai parte hartzaile gehienek ere argi ikusten zuten jaialdi haren funtzio simbolikoa. Isiltasun garaian ahotsa entzunarazteko abagunea zen, kontzientzia politikoa eta sentimendu abertzalea kaleratzeko aukera. Ez zen, ez, erakustaldi folkloriko hutsa izan Debakoa. Horrexegatik debekatu zuten, hain zuzen, 1966koa.

Mugimendu berri bat sortu zen, *gatzedi berri bat*. Ordura arte Francoren erregimenak onrtzat emandako erakustaldi folklorikoez gain, hizkuntzaren sustapenarekin eta euskal kulturaren kontzeptu berri batekin lotutako jarduerak antolatzen zituen; kultura propio bat eta, ondorioz, herri bat aldarrikatzen zuena. Egiteko moduan ere, "goitik" antolatutako ekitaldi ofizialen kontrara, "behetik" antolatzen zituen.

Talde eta elkarte haietako partaideek berretsi egin zuten, beraz, garaiko intelektualek hausnartutako euskal kultura moderno hura, euskaratik sortutako produkzio artistikoa, eta festa eta ospakuntzaren bitartez, kalera atera zuten euskaldunon bizinahia elikatuz.

Hilabete honetako hitza: **EUSKALTASUNA** elikatzeko, beste batzuen artean, kontuan izan beharko ditugu jarradura eta irekidura; baita, erregai modura, euskaratik sortutako festa eta ospakuntza ere.

Este año se cumplen 50 años de la celebración de la 1ª Euskal Jaia en Deba. De allí emergió una nueva generación de jóvenes que mediante su actividad cultural organizada "desde abajo", incluía actos más relacionados con la promoción de la lengua y un concepto de cultura vasca diferente de la que se permitía hasta entonces. Su objetivo fue la socialización de aquellos valores por medio de la fiesta y la celebración, pretendiendo demostrar la existencia de una cultura propia y, a través de ello, de un pueblo.



BEGIRADAK

5

ostirala

Plaza zaharra
22:00etan

Jolastera gatoz. Hala planteatu dugu. Herriko zenbait artistek irudiak egingo dituzte nahi duten teknika erabiliz: argazkia, pintura, marrazkia,... Beste batzuk hitzak ipiniko dizkiete irudi horiei: bertso edo poema bidez, hitz lauz,... literatur pieza txikiak sortuz. Proiekzio batean, irudiei eskainitako begirada diferenteak ikusi/entzuteko aukera izango dugu.

12

ostirala

Santa Maria elizataria
21:30ean

MURSEGO

Mursego (saguzarra portugesez) Maite Arroitauregiren bakarkako proiektua da; Arroitauregi biolontxelo-jotzaile gisa aritu izan da Anari, Lisabö, Xabier Montoia, Ama Say eta beste zenbait talderekin. Orain hirugarren diskoa iritsi da (Hiru), haren behin betiko berrespena, Arroitauregik areago sakondu baitu bere unibertso liluragarrian.

Pop-musika, hitzaren zentzurik zabalenean. Pop horretan, hizkuntzak nahastu egiten dira, baita cumbia eta poesia tekno-punkarekin ere. Bidaia bat da, zinematografikoa, sabanara, garretan dagoen Berlin batera... bertan egotea atsegin du Maitek. Munduari buruz behera begira, saguzarrek bezala.



HITZ HOTSAK

19

ostirala

Plaza zaharra
22:00etan

Euskal literaturako pasarte batzuk aukeratu dituzte partaideek. Egileari buruzko xehetasun batzuk azaldu eta gero, jendaurrean irakurriko dizkigute musikaren laguntzaz. Oparixko bat entzun nahi duenarentzat.

26

ostirala

Plaza zaharra
22:00etan

JOKIN LASA

Iragan mendeko azken laurdenean loratu zen euskal kantagintza berriaren oihartzunak dakarzkigu Zortziko Txiki Bat egitasmoak, bere oinarriak ahantzi ez dituen kantari baten lana baita, baina egungo folk-pop musikaren doinu eta airez jantzia.

Zortzi kanta, non ohiko bertsogintzaren molde zaharrak erritmo berriekin uztartzen diren. Zortzi istorio, non hitz gutxitan mundu oso bat azaltzeko ahalegina egiten den. Mundu txiki bat zortzi abestitan laburbildua. Horra.



Jokin Lasa *Zortziko Txiki Bat*

Euskal jaia (1964 - 2014)

22-30 Erakusketa: Euskal Jaiko kartelen erakusketa

• Mahai ingurua: **Euskal Jaia Deban**

25
osteguna

Agirre jauregia
19:00etan

27 EUSKAL JAIA

larunbata

“Euskal dantzez beteko ditugu gure kaleak, sukalde giroz pasealeku estalia, plater goxoz frontoia eta euskal musikaz herriko plaza”.



4

ostirala

ITURRI ONDOAN

Plaza zaharra
22:00etan

urria

KULUNKA dantza taldea: “Alizia mundu zoragarrian”

Debako Kulunka dantza taldeak "Alizia mundu zoragarrian" dantza emanaldia aurkeztuko du. Izen bereko ipuinean oinarrituta dago emanaldia, horren euskarazko adaptazio moderno bat eginez.

• Koreografia: Naroa Gurutzeta



2014

agenda

	Eguna	Ekintza	Tokia	Ordua	
ekaina • junio	18	PRAILEHAITZ I Liburuaren aurkezpena	Kultur Elkartea	19:00etan	
	19-6/6-7	Erakusketa: DURANGOKO MARGO TALDEA	Erakusketa gela	Zehaztu gabe	
	19	Ipuin kontaketa: "GORDE SEKRETUA"	Ispiluen gela	21:30ean	
	20	UR JOLASAK Kontzertua: "A SANTO DE QUÉ"	Hondartza Kultur Elkarteko plaza	17:00etan 22:00etan	
	21	KALEAN KANTUZ Kontzertua: KALEZ KALE TXISTULARI TALDEA	Kaleetan zehar Arkupeak	19:30ean 20:00etan	
	22	Kirola: IBILKETA NORDIKOA (NW)	Turismo Bulegoa	10:00etan	
	23	SAN JUAN SUA SAN JUAN SUA	Plaza berria Itziariko plaza	22:00etan	
	24	SAN JUAN Erromeria	Santa Katalina	11:00etan	
	26-28	MASTERCLASS (ORGANOA)	Sta. Maria Eliza	Zehaztu gabe	
	27	ORGANO KONTZERTUA Iturri Ondoan: "ERRIMAK OINETAN"	Sta. Maria Eliza Plaza zaharra	20:00etan 22:00etan	
	28	IBAILAGUN. Deba ibaiaren garbiketa Kontzertua: AITZURI eta EZOZI Abesbatzak SAN PEDRO SUA	Debako kaia Sta. Maria Eliza Plaza Zaharra	11:00etan 20:00etan 22:00etan	
	uztaila • julio	1	Haurrentzako kultur ekimena	Zumardia	Zehaztu gabe
		3 - 6	ZAPOREEN feria	Zumardiko kioskoa	22:30ean
4		Zinema: "EMAK BAKIA"	Kultur Elkarteko plaza	22:30ean	
5-7/31-8		Erakusketa: GONZALO ETXEBARRIA	Elizako klaustroa	Zehaztu gabe	
5		MERKATU TXIKIA GISATU lehiaketa (Debalai) Kirola: GIZA PROBA (Gipuzkoako txapelketa)	Plaza berria Aldats pilotalekua Euskal Jolas	Goizez Goizez Zehaztu gabe	
8		Haurrentzako kultur ekimena	Zumardia	Zehaztu gabe	
11-27		Erakusketa: BAROJA COLLET	Agirre Jauregia	Zehaztu gabe	
11		Iturri Ondoan: "MARI ERRAUSKIN"	Plaza Zaharra	22:00etan	
12		GARAGARDO festa	Gaztebtea	Zehaztu gabe	
13		Kirola: LASTURKO MENDI LASTERKETA Kirola: IBILKETA NORDIKOA (NW)	Turismo bulegoa	Goizez 10:00etan	
15		Haurrentzako kultur ekimena	Zumardia	Zehaztu gabe	
18		Kontzertua: DEBA eta ZUMAIKO Musika Bandak	Zumardiko Kioskoa	22:00etan	
19		GALERNA FESTA	Hondartza	Zehaztu gabe	
21-26		ASTE INTERNAZIONALISTA	Gaztebtea	Zehaztu gabe	
24		Zinema: "ASIER eta BLOK"	Kultur Elkarteko plaza	22:30ean	
25		Iturri Ondoan: MALATU	Plaza Zaharra	22:00etan	
26		Kirola: SOKATIRA (Gipuzkoako txapelketa)	Zumardia	Zehaztu gabe	
31	OUTLETa (Debalai)	Plaza Zaharra	Zehaztu gabe		

	Eguna	Ekintza	Tokia	Ordua
abuztua • agosto	1-12	Erakusketa: JESUS BELAUSTEGI ZERAMIKA	Agirre jauregia	Zehaztu gabe
	2	MERKATU TXIKIA	Plaza Berria	Goizez
	2-5	KOPRAIXAK	Itziar	Zehaztu gabe
	7	Udako Musikaldia: ORGANO, TXISTU eta AHOTSA	Sta. Maria eliza	20:00etan
	7-10	SURFING DEBA FESTA		Zehaztu gabe
	14-18	SAN ROKE jaiak	Deba	Zehaztu gabe
	21	Udako Musikaldia: SECRETUM	Klaustroa	20:00etan
	22-31	Erakusketa: Juan Ignazio Aizpuru ARGAZKIAK	Agirre jauregia	Zehaztu gabe
	28	Udako Musikaldia: SESAME laukotea	Klaustroa	20:00etan
	29	Iturri Ondoan: "ERDILDUN BERRIEN KLUBA"	Plaza zaharra	22:00etan
iraila • septiembre	5	Iturri Ondoan: "BEGIRADAK"	Plaza zaharra	22:00etan
	6	MERKATU TXIKIA	Plaza Berria	Goizez
	10	Festak: "SAN NIKOLAS-LASTUR"		Zehaztu gabe
	12	Iturri Ondoan: "MURSEGO"	Elizataria	21:30ean
	12-14	Festak: "SAN NIKOLAS-LASTUR"		Zehaztu gabe
	13	KALE MARGO LEHIAKETA		Goizez
	14-21	Erakusketa: MARGO LEHIAKETA	Agirre jauregia	Zehaztu gabe
	19	Iturri Ondoan: "HITZ HOTSAK" irakurraldia	Plaza Zaharra	22:00etan
	22-30	Erakusketa: EUSKAL JAIKO KARTELAK	Agirre jauregia	Zehaztu gabe
	25	Mahai ingurua: EUSKAL JAIA DEBAN	Ispiluen gela	19:00etan
26	Iturri Ondoan: JOKIN LASA	Plaza Zaharra	22:00etan	
27	Festa: "EUSKAL JAIA"		Zehaztu gabe	
urria-octubre 4	Iturri Ondoan: Kulunka dantza taldea: ALIZIA MUNDU ZORAGARRIAN	Plaza zaharra	22:00etan	





Iturri zaharretik

Iturri zaharretik
edaten dut,
ur berria edaten, beti berri den ura
betiko iturri zaharretik.

Iturri zaharretik
edaten dugu,
ur berria edaten,
hitz bizia aditzen, beti berri den hitza,
betiko hizkuntza zaharretik.

Iturri zaharretik
edaten dugu,
ur berria edaten,
hitz bizia aditzen, kantu zilarra entzuten,
beti berri den kantua, betiko isiltasun zaharretik...

(J.A. Artze)